




ARTEA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri erdibitua: 1., laurduna: 1.1., zilarrean bost gari-eskuta baltz sotuer eran ipinita; 1.2., gorrian urrezko palma bat; 1.3., gorrian urrezko gaztelua; 1.4., zilarrean otso ibiltari baltz bi paluan. 2., erdibitua; 2.1., gorrian zitore horizko gurutzea urrean; 2.2., zilarrean buru bat kapezetarekin, eta ezkerreko alderditik urtetan beso bat ezpata bategaz armatuta, berezko kolorean.

AITAMEN HISTORIKOA

Bizkaiko Jaurrerian, Arratiko merindadeko eleizatea; parrokia bi ditu eta erregidore fidel batek gobernatzen eban; Gernikako Batzar Nagusietan 61. eserlekua eta botua eban.

Gallona, Ugarte eta Zarroko dorretxe banderizoak. Ugarte eta Zumelzutarrak ziran familia banderizo garrantzitsuenak. Azken honeena zan Gazteluko dorretxea eta, orduko ezaugarriak gordeten ez baditu be, oraindino zutik dago. XVII. mendearen hasieran, Bizkaiko Jaurreriaren erregimendu nagusiko kideen hauteskunde orokorretan Castillo-Elejabeitia ganboatarren alde egin eban. 1624ko apirilaren 17an Bizkaiko Jaurreriaren Batza Nagusiak, holandar untzien erasoaren bildurrez, Jaurreriaren itsasertz eta portuak gotortzeko erabakia hartu eban eta kapitain ofizialak izendatu zituan uri eta eleizate guztietan. Ortuño de Urizar, bere izeneko oinetxearen jauna izendatu eban Castillo-Elejabeitiako kapitain, baita Dima, Igorre eta Arantzazukoa be. Kapitain eta ofizial izendapen honek uri eta Jaurreriaren arteko gatazkak ekarri zituen; hori dala eta, Felipe IV.a Erregeak, urte horretako azaroan, baliogabetu egin zituan izendapenok.



DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo partido: 1º, cuartelado. 1.1. en plata, cinco haces de trigo de sable en sotuer. 1.2. en gules, una palma de oro. 1.3. en gules, un castillo de oro. 1.4. en plata, dos lobos andantes de sable en palo. 2º, partido. 2.1. en gules una cruz florlisada de oro. 2.2. en plata, una cabeza con capecete, y moviente del flanco siniestro un brazo armado con espada, de sus colores.

RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia perteneciente a la merindad de Arratia, Señorío de Bizkaia, compuesta por dos parroquias y gobernada por un sólo fiel regidor que ocupaba el voto y asiento nº 61 en las Juntas Generales de Gernika.

Cuenta con las casas-torres banderizas de Gallanoa, Ugarte y Zarro. Las familias banderizas más importantes fueron los Ugarte y los Zumelzu. A estos últimos perteneció la torre de Gaztelu que, aunque muy rebajada, aún se conserva. A comienzos del siglo XVII, en las elecciones generales del personal del regimiento general del Señorío de Bizkaia, Castillo-Elejabeitia votaba a favor de la parcialidad gamboína. El 17 de abril del año 1624, la Junta General del Señorío de Bizkaia, ante la posibilidad de un ataque de naves holandesas, decidió fortificar las costas y puertos del Señorío y nombrar capitanes y oficiales en todas las villas y anteiglesias. Fue nombrado capitán de Castillo-Elejabeitia, así como de Dima, Igorre y Arantzazu, el proveedor D. Ortuño de Urizar, señor del solar de su apellido. Estos nombramientos de capitanes y oficiales dieron lugar a un pleito entre las villas y el Señorío, revocando el rey Felipe IV los nombramientos en noviembre del citado año.